

BOLA JOKOA ETA BOLALEKUAK ITSASON



Egileak: Pilare Muxika Lopetegi
Anttoni Okariz Gorrotxategi

2016

AURKIBIDEA

1.- Hitzaurrea: ondare txikia.....	3	14.- Erraztiko bolatokia	18
2.- Itsasoko ondare arkitektoniko txikiko elementuak.....	4	15.- Orueko bolatokia.....	19
3.- Itsasoko bolatokiak: sarrera.....	5	16.- Beitiko bolatokia.....	20
4.- Ezaugarri orokorrak.....	6	17.- Usabiagagoikoako bolatokia.....	21
5.- Orain arte Itsason aurkitutako bolatokien aztarnak....	7	18.- Atingoeneko bolatokia.....	22
6.- Eliza-atzea edo “Bolategui-aldea”	8	19.- Atinzabaleko bolatokia.....	23
5.- Goiko ostatuko bolatokia.....	9	20.-Zabalegiko bolatokia.....	24
6.- Mandubiko bentako bolatokia.....	10	21.-Urkulegiko bolatokia.....	25
7.-Zozabarrotxikiko bolatokia.....	11	22.- Kaminoetxeberriko bolatokia.....	26
8.- Alegiko bolatokia (Itsaso).....	12	23.- Egiluzeazpiako bolatokia.....	27
9.- Alegiko bolatokia (Gabiria).....	13	24.- Iburko bolatokia.....	28
10.- Kizkitzako bolatokia.....	14	25.- Albitsuko bolatokia.....	29
11.- Kamiogoikoako bolatokia.....	15	26.- Goeneko bolatokia.....	30
12.- Mendeungo bolatokiak.....	16	27.- Mandubiko bentako argazkia.....	31
13.- Kortako bolatokia (Beasain).....	17	28.- Eskertzak.....	32

HITZAURREA

ONDARE TXIKIA

- Gehienetan ondareaz egiten diren ikerketak eraikuntza nabarmenen edo handien azterlanak izaten dira eta Itsasori dagokion atal hori iaz aurkeztu genuen.
- Hala ere, giza garapenean ezinbestekoak izan diren elementu txikiagoak ez dira aintzakotzat hartzen.
- Baina balio historiko, artistiko, etnografiko, zientifiko, tekniko eta sozialagatik, gure ondare kulturalaren parte dira eta ezinbestean ezagutu, baloratu eta babestu beharrekoak.
- Aurten bolatokiei ekin diegun bezala, aurrerantzean gainerako elementuak aztertzen jarraitzeko asmoa dugu.
- Inprimatuta banatuko dugun ale hau 2016ko udazkenean eskuartean dugun informazioarekin burutua izan da baina gerora izan ditzakeen ekarpenen eguneratzeak <https://itsasokoargia.wordpress.com> agertuko dira.



ITSASOKO ONDARE ARKITEKTONIKO TXIKIKO ELEMENTUAK

- ✓ Bolatokiak
- ✓ Frontoiak
- ✓ Errotak: presak, kanalak, aldaparoak, gurpil-hidraulikoak, ...
- ✓ Ogi-labeak
- ✓ Gurutzeak eta Iminarriak
- ✓ Herri bideak
- ✓ Juzgado bideak
- ✓ Iturburuak eta iturriak
- ✓ Kanalizazioak, kainuak, ...
- ✓ Putzuak
- ✓ Ur askak, harriak (ikuztegia)
- ✓ Liñaputzuak
- ✓ Karobiak
- ✓ Mandio zubiak
- ✓ Perratokiak
- ✓ Proba-zelaiak
- ✓ Aroztegiak
- ✓ Saletxeak, mendiko bordak eta kamino bazterreko txabolak
- ✓ Teileriak
- ✓ Dolareak
- ✓ Erlauntzak
- ✓ etab.



ITSASOKO BOLATOKIAK

Sarrera

- Bola jokoa edo **bolatea**: herri kirol bakarrenetakoa da lan jarduera batekin loturarik ez duena.
- Ezagutzen den jokorik zaharrena dela esaten da, Egiptoren garaian ere ezaguna, baina Erdi Aroan zabaltzen dena bazter gehienetara.
- Gaur egun Itsason galdua bada ere, badakigu gure aurrekoak gogotik aritzen zirela. Oraindik gure artean ditugu bolatokiak ezagutu zituztenak, bola jokoa ikusle izandakoak eta baita bolatan jardundakoak ere.
- Testigantza guzti horiez gain, toponimia, argazkiak, material aztarnak, 1954ko ortofotoetako ebidentziak, ... eskura izan ditugu Itsasok izan zituen 22 bolatokiren aztarnak identifikatu ahal izateko.
- Honek adierazten du zenbaitetaraino zabaldua zen eta beraz, posible dela beste batzuk ere izatea.



zaletasun hau,


EZAUGARRI OROKORRAK

JOKU HERRIKOIA ELKARGUNEA ETA DENBORA PASA

- Bolatokiak jendea elkartzen zen gunetan kokatzen ziren (herri-guneak, auzo edo zozkera-guneak, erromeriak, bentak, sagardotegiak, ...) eta baita herri-bideetatik gertu ere.
- Bestalde, etxe batzuetan, zaletasuna medio, entrenamendu edota familiartekoen entretenimendurako ere baziren.

KIROLA ENTRENAMENDUA ETA LEHIA

- XX. mendearen erdialdean, ordura arte herri mailako jokoa izan zena, bailara eta probintzi mailako lehia izatera pasatu zen: joko arautua, txapelketak, ... kirola profesionalizatuz eta federatu izaerara iritsiz.
- Gurean nabarmentzekoak Zozabarrotxikiko Ugarteburutar familia, hainbatek eta hainbatek aipatutakoak eta historia egin dutenak.
- Gaur egun hainbat herritako bolatokiak berriro indartze bidean dira eta herritarrak jolasean ikusteko aukera dago, gaztetxoak eta emakumeak barne.



HERRIGUNEA	AUZO eta ZOKKERA GUNEA	ERROMERIAK	BENTAK eta FONDAK	HERRI-BIDE eta BIDE HERTZETAN	ETXEBIZITZETAN
- Itsasoko Ostaturia - Eliza atzea edo "bolategui aldea"	-Alegia (2) -Kamioigoikoa - Errazti - Korta -Orue	-Kizkitza - Mandubiko benta	-Zozabarrotxiki -Mandubiko benta	- Mendeungo "Pagadi txikia" -Beitia -Usabiaga goikoa -Orue	-Mendeun -Atinzabal -Atingoena -Zabalegi -Kamioetxe berri -Ibur -Urkulegi -Egiluzeazpi -Albitu -Goene

ORAIN ARTE ITSASON AURKITUTAKO BOLATOKIEN AZTARNAK



IZENA: "ELIZA-ATZEA"KO BOLATOKIA EDO "BOLATEGUI-ALDEA"
ZOZKERA: GOENDEGI **HERRIA:** ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'22.02"N LUZERA: 2°15'27.20"O

KOKAPENA: Eliza atzean dagoen paretaren kontra izango zen, Alustizaenea egin aurretik.

ZERI ELKARTUA?: Herriguneari eta ostatuari
JABETZA: Publikoa izango zen, ziurrenik.

GAUR EGUNGO EGOERA:
Bidea antzemateko moduan, hala ere, atzerago izan zitekeen.

TIPOLOGIA:
MATERIALAREN GORDELEKUA:



BOLARIAK: Garaiko eta aurreko herritarrak. Pentsa liteke Itsasok izan zuen lehen bolatokia izango zela.

JAKINGARRIAK:

Elizaren atzean dagoen Alustiza etxearen eskrituretan honako hau dio: "**Comunidad:** integran las fincas descritas bajo los números 3, 4, 5 y 6 la CASA conocida con el nombre de ALUSTIZA, radicante en jurisdicción del Concejo o Ayuntamiento de Itsaso (o Ichaso), edificada ó construida en el terreno llamado "Eliza-Atzea", ó "Bolateguí-aldea". **HOY ITSASO HIRIGUNEA**".

Alustiza etxearen lehenengo eskriturak 1851n sinatu zirenez, ondoriozta daiteke urte haietan, etxea eraiki zenean, bolatokia lekuz aldatu behar izan zutela.

IZENA: GOIKO OSTATUKO BOLATOKIA

ZOZKERA: GOENDEGI

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUDEA: 43° 4'22.70"N LUZERA: 2°15'27.50"O

KOKAPENA: Ostatu gainaldean, goiko paretaren kontra.

ZERI ELKARTUA?: Kontzeju etxeari .

JABETZA: Publikoa

GAUR EGUNGO EGOERA: Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 15m inguru luze, gaur egun. Hilerrirako eskailerak jatorrizko luzera moztu dute.

MATERIALAREN GORDELEKUA: Ganbarara zihoan eskailera azpian. Bertan jaiotako Juani Izagirreri esker bola oraindik jaso dago.



BOLARIAK: Herriko mutil gazte gehienak (15-16 urte ingurutik aurrera, soldaduska bitartean, ezkondu bitartean, herritik beste norabaitera bizitzera joan artean,...).

JAKINGARRIAK: Itsasoko Ostatukoa eta Mandubiko Bentakoak bereziak ziren, **6 birlatakoak** hain zuzen (gainerakoetan 9koa). Erdiko ilararik gabea omen zen, eta *trabesea 3par4* lortzea zen helburua. San Bartolometako "konkurtsua" hain zen garrantzitsua, non zentzua ematen zion hainbeste bolatan jarduteari, entrenatzeari, etxe inguruan izateari,..
Igande arratsaldetan, aldi berean, pelotan eliz atariko 3 gunetan eta bolatan txandaturaz ibiltzen ziren. Neskek pelotan jarduten zuten, baina bolotan ez. Honez gain, Ostatuko Juanitok soinua jotzen zuten eta herriko gazteek ostatu barruan dantza egiten zuten. Hala ere, ez beti. Juanitoren aitak (Santik) esaten omen zuten: "*hemen jendek patata mozorronea eiteo, egualdi ona daunen gora jutea eta egualdi txarra daunen be(he)ra, patata mozorroak bezala*". Eguraldi onarekin, Mandubira igotzen omen ziren, han ere soinua egoten zelako (Joxemiel, Fabian, Juanito)

IZENA: MANDUBIKO BENTAKO BOLATOKIA

ZOKKERA: MENDIALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 5'13.02"N

LUZERA: 2°14'41.45"O

KOKAPENA: Bentako albo batean, hegoaldean, dagoen txabola, lehen bolatokia zen.

ZERI ELKARTUA?: Bentari, errepideari, ...

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA: Antzemateko moduan, originala mantentzen da paretaz itxita.

TIPOLOGIA: 6 birlakoa (Itsasokoa bezala)

MATERIALAREN GORDELEKUA: Bentan



BOLARIAK: Herriko zein inguruko herrietako mutil gazteak, igande arratsaldetan eta urteko edozein sasoiatan, estalia zelako.

JAKINGARRIAK:

Bolatokia dagoen eta eskura daukagun argazki zahar bakarra (1926koa). Bestalde, inguruetan estalia zegoen bakarrenetakoa.

Ikusleak alboetako paretean eserita egoten ziren.

Juanito Etxanizek bere ama zenari entzundakoa: Joxe "Exkerrak", apustuzalea izaki, ontzako urrea jarri omen zuen irabazlearentzat. Zozabarrotxikitik Hermenegildo Ugarteburu egunero joaten omen zen bizikletaz bertara, bolatan entrenamendu saioa egitera. Aisa irabazi omen zion errezildarrari.

IZENA: ZOZABARROTXIKIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUDEA: 43° 3'47.36"N

LUZERA: 2°16'28.16"O

KOKAPENA: Zozabarrotxiki etxe kontran 6 bat metro eta gainontzeko guztia etxeke terrenoan aurrera . Mahatsez estalia.

ZERI ELKARTUA?: Ostatuari eta postetxeari.

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA: Lehenik zentral elektrikoak eta ondoren errepideak eta industrialdeak, eraldatua.

TIPOLOGIA: 9 birlakoa eta erregelamenduzko neurriak zituena

MATERIALAREN GORDELEKUA: Ostatuan

BOLARIAK: Inguruan bizi zirenez gain, inguruko herrietakoak, pasatzen zen edozein,...



JAKINGARRIAK: Jose Antonio Ugarteburuk kontatu digunez, J.M. Iparragirre hil zenerako, bazen bolatokia bertan. Ordurako, izugarritzko afizioa, bere aitona-rengandik hasita.

- Batzuk *abantarea* hartuta botatzen zuten bola, beste batzuk, hanka geldian (biak onartzen ziren) Horregatik 2 m inguru bolatoki hasieran eta beste bat bukaeran behar izaten zituen bolatoki batek.
- Bolatokietan jokoa ere egiten zen, "4 par 5 baietz" esanaz, eta pezeta bat edo jokatzen zuten.
- Santalutzi bailaran bolatoki asko ziren. Santalutzi-Alegi bailaran 50.eko hamarkadan 102-104 bolari apuntatu omen ziren binakako txapelketara. Hurrengo belaunaldiak ez zuen boletan jokatu.
- Bere aita Joxek 5 duroko urrea galdu zuen ormaiztegiar baten kontra. Ezezaguna zen, inskripzio epea bukatuta zegoen eta honen aitari galdetu zioten ea jokatzen utziko ote zioten, izenik eman gabe egonagatik. Joxek onartu zuen eta apustua galdu.
- Bere birraitona Patxik irabazitako urrezko erlojua berak dauka gordeta.
- Bere aitona apustu asko irabazi zituen, bai bolatan, baita "barra vasca"n ere. Ormaiztegin norbaitek apustu egin omen zuen bere aitona barra hau jaurti eta berak apustua "azeptau". Ormaiztegiako plazatik errepide aldera bota behar zuen. Berak balkoiko jendea erretiratzeko eskatu omen zuen baina kasurik ez zioten egin. Barra leihotik barrura sartu omen zen eta han bukatu omen zen apustua.

IZENA: ALEGIKO BOLATOKIA (1)

ZOZKERA: ALEGIALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'15.78"N LUZERA: 2°15'44.03"O

KOKAPENA: Plaza eta errotako aldaparoaren arteko lur sailean, gaur egun baratza dagoen lekuan.

ZERI ELKARTUA?: Auzoguneari

JABETZA: Publikoa uste dugu

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birlakoa.

MATERIALAREN GORDELEKUA:



BOLARIAK:

JAKINGARRIAK:

Oso gutxik gogoratzen dute. Joxe Antonio Ugartebururengandik jaso dugu kokagune hau, baina aspaldi galduko zen bertako jarduera, erreka besterik beste aldekoa puri-purian egon zelako.

IZENA: ALEGIKO BOLATOKIA (2)
ZOZKERA: ALEGIALDEA **HERRIA:** GABIRIA

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'11.17"N LUZERA: 2°15'43.04"O

KOKAPENA: Beheko ostatua zenaren aurrealdean, etxe kontran, Zubimusu aldera.

ZERI ELKARTUA?: Aurretik zen beheko tabernari (Zubimuzu etxean)

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birla, 3 ilaratan banatuta

MATERIALAREN GORDELEKUA: Beheko taberna.



BOLARIAK: Alegi bailara aldeko gazteak, Itsaso, Gabiria, Ormaiztegi eta bertatik pasatzen zirenak ere.

JAKINGARRIAK: Atsusaingo Juan Mari Goitiak (Maria Goitiaren aita) bola hotsa aditu orduko joaten omen zen bolatan ibiltzera. Diru pixka bat Altzibarko Joxe Joakinek omen zuen (Eduardoren aitak) eta hari txanpon batzuk ateratzera joaten zen. *“Garai hartan pezetea baiño gutxigo izango zan”* (jokatzen zen dirua, alegia) zioen Mariak. Luixa zen tabernaria, Armaindegingoekin pariente. Intxaurra zen tabernaren lekuan eta honen azpian, bolatokia. Ikusleak, kamino aldetik, zutik egoten ziren. Etxe aldetik jartzen zirenentzat *asientok* zituen pareta bazterrean. Atsusaingo Matias mutiko koxkor zela joaten omen zen birlak jartzera, ordainetan pezeta bat jasotzen zuelarik. 1963-4 arte egon zen martxan gutxi gora behera. Estali berde bat zuen birlak jartzen ziren alderdian. *“Oso oso ederra zen”* dio Armaindegiko Maria Luisa Irastorzak eta umetan bertan jolastu ere egiten omen zuten. Han sortzen zen giroak oroitzapen oso onak utzi zituen ingurukoengan.

IZENA: KIZKITZAKO BOLATOKIA

ZOKKERA: MENDIALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'57.92"N

LUZERA: 2°15'15.12"O

KOKAPENA: Plaza ertzean, Mandubiko aldean.

ZERI ELKARTUA?: Ermitari eta erromeriari

JABETZA: Publikoa, herriak egindakoa.

GAUR EGUNGO EGOERA: Antzemateko moduan baina plaza zabaldu zenean, 1934ean, ez zen mantendu.

TIPOLOGIA: Ez dakigu

MATERIALAREN GORDELEKUA: Herrian.



BOLARIAK: Herrikoak eta inguru zabalekoak, Kizkitzako Amaren egunean.

JAKINGARRIAK: Garai batean 2 bolatoki izan ote ziren errezeloa dago baina ez dugu inor ezagutu bertan ikusi duenik edo ezagutu duenik. Aditzez dakigu. Bazirudien irailaren 8an jendetza elkartzen zela eta inguruko herrietatik ere kuadrila asko etorri eta elkar lehiatzen ibiltzen zirela eta egunaren joana iskanbilatsua gertatzen zela jaso dago, 1819ko dokumentu batean .

IZENA: KAMIOGOIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'21.19"N LUZERA: 2°15'55.16"O

KOKAPENA: Etxetik 200 m. ingurura, herrira zihoan bidearen azpialdean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari eta pasoko bideari
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:
Pinudian antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birlatakoa
MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian



BOLARIAK: Usabiagakoak, Egizabalgoak, Kamiokoak, ...
Zenbat garaitan, herriko beste zozkera batzuetakoak ere etortzen ziren, txapelketak jokatzeko ziren.

JAKINGARRIAK:
Azpialdean erleak egoten ziren eta kontuz ibili behar izaten zuten, erleak aztoratu gabe.
Azpialdean paretatxo bat zuen, bolak ez ihes egiteko.

IZENA: MENEUNGO BOLATOKIAK
ZOKKERA: EZTALALDEA **HERRIA:** ITSASO

KOORDENADAK: 1- LATITUDEA: 43° 4'8.73"N LUZERA: 2°14'52.52"O 2- LATITUDEA: 43° 4'4.43"N LUZERA: 2°14'53.71"O

KOKAPENA: 1- Errobizabaldik zetorren Juzgado bide inguruan, Goikoetxeko mugatik oso gertu, Pagadi txikia esaten zitzaion tokian.
2- Juzgado bide ondoan, etxetik 20 m –ra.


ZERI ELKARTUA?: Baserriari eta pasoko bideari
JABETZA: Pribatuak

GAUR EGUNGO EGOERA:
Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Erregelamenduzko neurriak
MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian

BOLARIAK: Mendeungoak, Urteagakoak, Itzekoak, Aranekoak, Goikoetxekoak, Atingoak, Beittikoak, Urkulegikoak,...

JAKINGARRIAK: Atingo Estebanek dio "Paari txikiko bolatokin" bera aritutakoa dela eta Atinzabalgo Zoilok berriz, etxe ondoan dagoena du gogoan, biak urte berean jaiok izanda.
Eztalaldeko baserrien mendi sailetarako joan-etorriak Mendeundik pasatzen ziren guztiak eta topagune edo elkargune natural bat sortzen zen bertan. Behiak umetzeko zezena ere bertan egoten zenez, etxe ondoko bolatokian jarduten zuten zenbaitzuk.
Alegiko festetara Astigarretatik etorri eta bueltakoan Mendeungo bolatokian jarduten zutela dio Urkulegiko Joxe Agustinek (Iturringo Ramon lehengusuak kontatua)



IZENA: KORTAKO BOLATOKIA
AUZO: ARRIARAN **HERRIA:** BEASAIN

KOORDENADAK: LATITUDEA: 43° 4'24.41"N LUZERA: 2°14'30.43"O

KOKAPENA: Etxetik errekarantz dagoen tartean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA: Kortaldera doan pista egin zenean erdi-erdiatik pasa zitzaion bidea eta erabat desitsuratua geratu zen.

TIPOLOGIA:
MATERIALAREN GORDELEKUA:



BOLARIAK:

JAKINGARRIAK: Kortako Leandrok, bere 81 urterekin, ez du gogoratzen han inor bolatan ibili izana. Bera umea zenean jolasean ibiltzen omen ziren han inguruan eta toponimian jasoa geratu da “bolalekualde” bezala. Suposa daiteke inguruetakoa baserrietakoa han elkartuko zirela bolatan aritzeko, tartean Itsasoko jendea ere (Intxaurzelaietakoak, Kortaldeakoak, Albitxuondokoak, ...)

IZENA: ERRAZTIKO BOLATOKIA

ZOKKERA: ALEGIALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'41.39"N

LUZERA: 2°16'2.35"O

KOKAPENA: Etxebizitzaren atzeko belardian, ur putzuaren alboan.


ZERI ELKARTUA?: Inguruko baserriei.

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA: Antzemateko moduan baina Ariztizabalerako bidea ireki zenean, zati bat kendu zitzaion.

TIPOLOGIA: 9 birlatakoa

MATERIALAREN GORDELEKUA: Bola, putzuan sartuta, birlak Erraztin.



BOLARIAK: Azken aldera Erraztiko hiru familietakoak (Jexux, Martin, Juan –frailea- ,...) eta Uribarkoak (Joxe Osinalde),... ibiltzen ziren bolatan.

JAKINGARRIAK:

Luzio, Kayetano eta Luis Iraetak eginikoa zen. Luis 22-23 urterekin hil egin zen, Luis Beasainera joan zen bizi izatera. Luzio geratu zen etxean.

Bolea Zozabarroko Martxielek eginikoa zen.

IZENA: ORUEKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'23.42"N LUZERA: 2°16'6.03"O

KOKAPENA: "Barruti txikin", etxetik 200 m. ingurura, Goeneko sail barrenean eta Kattaindegira doan bidearen gain aldean.

ZERI ELKARTUA?: Inguruko baserriei

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan. Topea egiten zuen egur arrastoak izan litezkeenak bertan daude.

TIPOLOGIA: 9 birlatakoa

MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian

BOLARIAK: Santi Goenekoa, Barreneko Morroia (Simon, Orendaindik etorria), Kattaindegiko Zoilo eta Joxe (Martin, umea, ikuslea)



JAKINGARRIAK:

1953 arte iraun zuen bola jokoak bertan.
Kamiogoiko bolalekuarekin batera egon zen martxan.

IZENA: BEITIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: EZTALALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'41.23"N

LUZERA: 2°15'29.40"O

KOKAPENA: Etxe atzealdean, Alegiatik Itsasora zihoan herri bidean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari eta pasoko bideari
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:
Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birla (3 ilara bakoitzean)
MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian



BOLARIAK: Azkenaldean, behin errepidea egin ondoren, etxeakoak (Joxe eta bere anaiak)

JAKINGARRIAK:

Joxek egin ohi zituen bolak.

Esku zuloa egin behar izaten zitaion. Botatzeko garaian, behatzak sartu, indarra egin eta bota behar zenean eskua jiratu egin behar izaten zen. Beste batzuk, bola esku gainean hartuta botatzen zuten, eskua sartu gabe. Bolatokiko ohola nola josi zuen kontatu digu: 2-3 lekutan, zutika eta punta ateratako oholak lurrean sartu eta honen gainean, lurraren kontra bolatako egurra josi, horrela ez baitzen mugitzen. Frenteko egurra, lodiagoa. "Txaparro"ri "amona" ere esaten zioten.

IZENA: USABIAGAGOIKOAKO BOLATOKIA
ZOZKERA: MADUREA **HERRIA:** ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'24.58"N LUZERA: 2°15'43.80"O

KOKAPENA: Etxetik erreka bitartean, Itsasoko herri bidearen ondoan.

ZERI ELKARTUA?: Herri bideari eta baserriari
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:
Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birlatakoa
MATERIALAREN GORDELEKUA: Etxean



BOLARIAK: Ingurukoez gain, oso zaleak ziren bertako Joxe, Inixio eta Juan Amundarain.

JAKINGARRIAK: Juan Zufiriaren esanetan oso bolatoki ona zen, ezaguna, herribide horretatik etxe askok zutelako pasoa Itsasoraino.

Herribide honen ezaugarri bat da harmailak zituela Usabiagatik Goiko Ostaturaino. Esaten denez, Usabiagabeheko alkateak egin arazi zituen, oinetakoak lokaztu gabe Kontzeju Etxera eta elizara iristeko.

IZENA: ATINGOENeko BOLATOKIA
ZOZKERA: GOENDEGI

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'49.48"N

LUZERA: 2°15'37.13"O

KOKAPENA: Etxetik Itsasorantz abiatu eta kaminoaren azpialdean, etxebizitzatik 50 m.ra.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:
Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Erregelamenduzko neurriak
MATERIALAREN GORDELEKUA: Etxean



BOLARIAK: Estebanez gain, Mendeungo hiru anaiak, Joxe, Rufino eta Jabier, Atinzabalgo Santi eta Zoilo,...

JAKINGARRIAK: Bola Zozabarrotxikitik ekarria zen. 1949 inguruan egindakoa, oso gogokoa baitzuen bola jokoa. Berarekin bere aita Inazio eta osaba Felix ere aritu ziren egiten. 17 urte inguru zituen garaian, Santa Lutziko Ezpeletanera joaten zen bere aita zenarentzat tabako bila (razionamentu garaian) eta hantxe geratzen zen bolatan. Ezkondu eta gerora ere joaten zen bolatan jokatzeRa, Anoetara adib. Legazpiko bolatokia elegantea zela dio. "Jokue" pezeta bana botatzea izaten zen eta birla gehien botatzen zuenak jasotzen zuen dirua. Behin San Pedrotan Santa Lutzin Zozabarroko hiru anaiak han zirela, muturra sartu zuen eta "jokue" kendu zien besteei. Eskuinaldeko lehenengo birla nola jartzen den oso garrantzitsua da. "3 par 4 baietz" esaten zuten eta Zozabarrokoak Estebanen alde egin zuten behin Itsason "7 eo 8 baietz". Bat 4koa eta bestea 3koa bota zituen.

IZENA: ATINZABALGO BOLATOKIA

ZOZKERA: GOENDEGI

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'55.16"N

LUZERA: 2°15'27.47"O

KOKAPENA: Erramu arbolak diren lekuan, etxe aurrean, bidez azpitik.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Entrenamendu eta denbora pasarako

MATERIALAREN GORDELEKUA: Etxean



BOLARIAK: Etxekoak (Manuel, Santi eta Zoilo batez ere)

JAKINGARRIAK :

Atinzabaleko Manuelek, Santik eta Zoilok egindakoa, Atingoaren garai beretsuan (1949)

Santi zen oso zalea.

Soldaduskara joan aurreko kontuak: Igande arratsaldetan, Itsasoko Ostatun bolatan egin (4etatik 6etara edo) eta Mandubira edo Atxurzara joaten ziren, bertan soinua egoten baitzen.

Oso gaztetatik hasten omen ziren bolatan, askotan behar adina indarrik ere izan gabe.

IZENA: ZABALEGIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'2.83"N LUZERA: 2°16'13.51"O

KOKAPENA: Etxetik 200 metrotara, pinudi barrenean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: 9 birlakoa

MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian



BOLARIAK: Etxekoak, Martin aita eta ondoren semeak Pako, Rexu eta Juantxo.

JAKINGARRIAK: Gazte denborako dibertimendurako iturria zenez, Martin aita aritzen zen bolatan. Ondoren nahiko utzia egon bazen ere, aitarengandik jasotako zaletasuna berreskuratu zuten bere semeek eta bolatokia errekuiperatu zuten hauek. Hala ere ez ziren beste bolatokietara joaten, etxekoen disfruterako zeukatzen. Oraindik ere bolatokiko ohola han ote dagoen susmoa du bertako Juantxok. Azkenaldian erabili zuten bola Zozabarrotxikin atzera utzitakoa zen, erabilaeraren erabileraz gastatua zegoelako une batean eta lehiaketetarako baliogabea zelako. Pakok 12-14 urte zituen arte ibiltzen ziren bolatan (60. hamarkadaren hasiera arte)

IZENA: URKULEGIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: EZTALALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'49.80"N

LUZERA: 2°15'14.61"O

KOKAPENA: Ikuiluaren goiko sarreran.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari eta Urteagarako bideari.

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA:

MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian



BOLARIAK: Bertako Joxe Mari eta Joxe Martin Barrenetxea eta gerora Juan Miel.

JAKINGARRIAK: Karmenek gogoan du ume koxkorak zirenean nola jarduten zuten bolatan beraien aita zenarekin igande arratsaldeetan.

IZENA: KAMIOETXEBERRIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'45.16"N

LUZERA: 2°15'50.66"O

KOKAPENA: Etxe aurrean, silo eta ikuiluaren artean, traktore bidean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari


JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Bidea antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Entrenamendurako

MATERIALAREN GORDELEKUA: Ikuiluan



BOLARIAK: Etxeko anai zaharrenak (Joxe eta Patxi Zufiriak) oso zaleak ziren, batez ere bigarrena.

JAKINGARRIAK:

Bola Patxik inguratu zuen.

IZENA: EGILUZEAZPIKO BOLATOKIA

ZOZKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUDEA: 43° 4'9.45"N

LUZERA: 2°15'40.53"O

KOKAPENA: Etxekontran, ekialdetik, ogilabearen segidan.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Entrenamendurako

MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian

BOLARIAK: Egiluze koak, Orikoak...



JAKINGARRIAK:

Oriako Joxepa Usabiagak dioenez, bera onartua izaten zen bolari moduan, ondo moldatzen zelako. Hau izan da emakume bolarien testigantza bakanetakoa.

IZENA: IBURKO BOLATOKIA
ZOZKERA: EZTALALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'32.69"N LUZERA: 2°15'33.77"O

KOKAPENA: Gainaldean, goiko txabolatik 15 bat metrotara pinudi barrenean.

ZERI ELKARTUA?: Etxeari.
JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:
Pinu artean baina antzemateko moduan.

TIPOLOGIA: Etxekoen entrenamendu eta dibertsiorako. 9 birlakoa zen.
MATERIALAREN GORDELEKUA: Baserrian



BOLARIAK: Etxekoak zaleak ziren eta bertakoez gain Beitikoak, Urkulegikoak,... ere aritzen ziren.

JAKINGARRIAK: Joxe Angelek kontatu digunez, Itsasoko bolatokian ere behin baino gehiagotan aritutakoak dira. Gabiriara ere joandakoak dira. Bolatokia eta bola bera ere etxeakoak egindakoa zen (aita Ramonek eta hiru semeak, Joxe Angel, Jexux eta Patxik).

IZENA: ALBITSUKO BOLATOKIA

ZOZKERA: EZTALALDEA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 3'33.48"N

LUZERA: 2°15'11.69"O

KOKAPENA: Albitu baserrien gainaldeko pinudiaren barrenean, Maatsa aldera.

ZERI ELKARTUA?: 2 baserriei

JABETZA: Pribatua


GAUR EGUNGO EGOERA:

Antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Entrenamendurako

MATERIALAREN GORDELEKUA:

Albitsubehokoan



BOLARIAK: Albitsugoikoak eta Albitsubehokoak

JAKINGARRIAK:

Itsason egindako bolatokirik berriena izan daiteke, izan ere, Prontxiok txikitan Itsason jendea bolatan ikusi eta zaletasuna piztu zitzaion eta aldamenekoarekin etxe inguruan jartzea erabaki.

Bola eta birlak ere aizkoraz etxean eginikoak erabiltzen zituzten. Bola egiteko sagarrondoaren ipurdia erabili zuten.

IZENA: GOENeko BOLATOKIA

ZOKKERA: MADUREA

HERRIA: ITSASO

KOORDENADAK: LATITUTEA: 43° 4'21.71"N

LUZERA: 2°16'1.89"O

KOKAPENA: Etxe gainaldean, ipar ekialderantz, pinudi barrenean.

ZERI ELKARTUA?: Baserriari

JABETZA: Pribatua

GAUR EGUNGO EGOERA:

Asientua antzemateko moduan

TIPOLOGIA: Entrenamendurako

MATERIALAREN GORDELEKUA: Etxe barruan



BOLARIAK: Etxeko anaiak eta auzoko lagunak (Kattaindegiko Martin eta Kamioko Abelino Garmendia)

JAKINGARRIAK:

Bola Mielek berak egindakoa, etxeko arte arbolaren enborrarekin (elurteren batek botatakoa izango omen zen, ez omen zuten zuhaitzik botatzen bestela). Daratuluarekin aldenik-alde zuloa egin eta gero trintxarekin berdindu. Erramintak etxean egon ohi ziren normalean. Birlak ere etxean egindakoak, ingurukoak ikusten zituen bolatan eta inguruko bolariak baino gazteagoa izanik, inbidiak jota egin zuen bolatokia. Bolatokiak azpialdean, gaztain egurra zuen bolak alde egin ez zezan. Soldaduskara joan aurretik egindakoa zen (1955.ean inguru). Itsasoko ostatuan zegoen bolatokiko ohola kendu eta aritzezko beste bat jarri zuen Goikoetxeko Pedro Izarekin batera. Egurra Itsasogoeneko Joxeinixiori eskatu zioten.



Mandubiko benta, 1926

Argazkia Mandubiko bentakoek eta Mandubi zaharrekoek eskainia

Ezkerretik eskuinera: ezezaguna, ezezaguna, Joxe Agustin Etxaniz (Kamiñoenekoa), ezezaguna; Joxepa Aretxabaleta Intsausti 1914-2000 (Mandubi-zaharrekoa); Presentación Lizarazu (Mandubiko bentakoen amona, Martin "Exkerra"ren ama); apaiza (ezezaguna); Joxe Inazio Intsausti (Astigarretako Otegikoa); Martin Makazaga "Ministroa" (Dorronsotegikoa); Felipe Mujika (Mandubiko bentakoa , mando gainean); Joxe Lasa Mujika "Exkerra"(Mandubiko bentakoa); Joxe Antonio Aretxabaleta (Mandubi zaharrekoa , herriko alkate izandakoa) eta Astigarretako apaiza.

ESKERTZAK

Albitsubeheko Prontxio Mujika
Alustizaeneako Pablo Gómez
Armaindegiko Maria Luisa Irastorza
Astigarretako Otegiko Joxe Arrospide
Atingoenako Esteban Mendia
Atinzabalgo Zoilo eta Ramon Albisu
Atsusaingo Maria Goitia, Matias Arza eta Bittori Garcia
Beitiko Joxe eta Joxe Ramon Barrenetxea eta Genara Toledo
Egiluzeko Maria, Isaac eta Juan Mari Aldanondo
Egiluzeberriko Joxe Ramon Aranburu eta Maria Jesus Aldanondo
Egizabalgo Antonio Zufiria
Erraztiko Agustin Albisu
Goeneko Miguel Arcelus
Goiko Ostatuko Juani Izagirre eta Erraztiko Kaio Iraeta

Iburko Joxe Angel Badiola
Intxaurzelaietako Jose Luis Irastorza
Kamioetxeberriko Juan Zufiria
Kattaindiko Martin Telleria
Kortako Leandro Lizarazu
Mandubiko Bentako Presen Lasa
Mandubizaharreko Juanito eta Rosa Etxaniz
Mendeungo Jexux Okariz
Oriako Joxepa Usabiaga eta Ixa Atienza
Orueko Juanita, Malen, Juan Mari eta Feli Gorrotxategi
Sarriegiko Juan Mari Arzelus
Uribarko Joxe Osinalde eta Miren Etxeberria
Urkulegiko Joxe Agustin eta Mari Karmen Barrenetxea
Urteagako Joxe eta Maxi Mujika
Zozabarrotxikiko Joxe Antonio Ugarteburu
Zabalegiko Pako, Juantxo eta Martin Etxeberria eta
Lurdes Maiz

EHUko Jose Rodriguez eta Victorino Palacios

